

**<< Literatura-sorkuntza >>**

**Luisa Etxenike - Anjel Lertxundi**

**Área 2- Creación y Expresión Artística**

**2. Arloa: Sorkuntza eta Adierazpen Artistikoa**

**Euskarazko bertsioa- Versión en euskera**

**2003ko otsaila**



## Sarrera

Euskal idazleak herri elebidun batean bizi gara, eta bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, ofizialak dira hemen. Halaber, lan-eremu bat ere badaukagu, literaturarena, eta, jardute artistiko gisa, mugak gainditzea eta giza izaera aztertzea du helburu. Alde horretatik, gure jarduera artistikoa pertsonala eta berezia den horretatik harantz joaten ahalegintzen da, idazketaren bidez, pertsona orok ezagun dugun lekura iriste aldera. Egia da gure laneko gai zabal hori –giza izaera– eta horri heltzeko tresnak –hizkuntza eta idazketa– ez direla idazleenak soilik. Alabaina, errealitate ezkutua modu berezian, literarioan, azaltzeko egiten dugun ahaleginak, hain zuzen, berezi egiten gaitu eta idazle bihurtzen gaitu.

Idazlea, modu artistikoan, hizkuntza jakin batean mintzatzen da. Hala ere, Koldo Mitxelena esan zuenez "hizkuntza tresna da, ez da ontzia: bere baitan ez du ezer eta dena izan dezake". Idazlearen lana eta ardura dira, besteak beste, hizkuntza bat adierazgarritasunaren eta estetikaren aldetik garatzen laguntzea, eta hizkuntzaren esanahiak nahiz edukiak ahal bezain beste ugari daitezen egitea.

Gure gizartea elebiduna den aldetik, inguru linguistiko berezi batean bizi gara, hots, bi hizkuntzetatik batek, euskarak, diglosia-egoera bizi du. Euskaldunak beren hizkuntzaren erabilera eta presentzia normalizatzen saiatzen dira. Baina ahalegin hori egitea ez dagokie euskaldunei eta hizkuntza hori duintasunez jantzi nahi dutenei soilik; aitzitik, euskal gizarte osoak hartutako konpromiso politikoa da. Alde horretatik, gure hizkuntzen bizikidetasuna euskal herritar ororen erantzukizuna da, eta berekin dakartza ondorio psikologiko, komunikatibo, administratibo eta politiko andana bat. Horiek aintzat hartu behar ditugu bizikidetasun linguistikoa bidezkoa eta harmonikoa izan dadin.

Haatik, herritarrak eta, bereziki, idazleak garen neurrian, gure bi hizkuntzen bizitzari eta garapenari nabarmen eragiten dien beste alderdi bat azpimarratu behar dugu. Azken hamarkadetan gertatu diren aldaketa sozialek ondorio larriak izan dituzte hizkuntzan, eta, beraz, hitzean, adierazpen- eta komunikazio-bide pribilegiatua den neurrian. Beste komunikazio-bide eta -formatuekin alderatuz gero, ahozko komunikazioak gure zibilizazioaren hasieratik izan duen sona galtzen joan da. Ospe-galtze hori nabaria eta bistakoa izan da, batez ere, gazteen artean, "erabiltzen diren" hitzetan eta, ondorioz, baita entzuten diren hitzetan ere.

"Hitzaren basamortutzea" dei dakioken prozesuan gaude. Hizkuntzaren eta hitzaren etenik gabeko "gaitasun-galtze" horrek esan nahi du adierazpena higitzen ari dela, eta pobretze horrek ez dio hizkuntzari berari bakarrik eragiten; aitzitik, komunikazio eta, beraz, bizikidetasun falta ere badakar. Beraz, egia bada ere idazleek berezkoa dutela hitzezko egintzari eta hori hondatzeari buruzko ardura, , kezka hori ez da horiena bakarrik. Guztiok erabiltzen dugu hizkuntza eta guztiok gure egin behar dugu hizkuntzaren barne- eta gizarte-adierazpena birgaitzeko apustua, bai eta eztabaida gure errealitate elebidunean gizarteratzeko konpromisoa ere.

Dokumentu honetan biltzen diren hausnarketek eta proposamenek bi alderdi horiek uztartzen dituzte. Batetik, gure gizartearen errealitate elebiduna, eta bi hizkuntzen garapena nahiz behar komunak eta espezifikoak. Bestetik, komunikazio- eta bizikidetasun-bide gisa erabiltzen dugun hitzari buruzko hausnarketa, hitza galtzen ari dela egiaztatzea eta horrek, hain zuzen, pertsonaren nahiz taldearen ikuspuntutik izan ditzakeen ondorioak. Halaber, uste dugu literatura-sorkuntza babesteko politika bi alderdi horiek aintzat hartuta garatu behar dela.

Adierazpen artistiko eta gertakari sozial gisa interesatzen zaigu hitza; sortzeko eta komunikatzeko tresna delako, estetika aztertzeko modua eta bidezko bizikidetasuna lortzeko bidean baliabide aproposa delako, betiere, Heinrich Böll-ek esan zuenaren ildotik: "Idazle gisa helburu dut etikaren ikuspuntutik zentzua duen hizkuntza bilatzea, etikaren ikuspuntutik zentzua duen herri batentzat".

## **Esparrua**

Sarreran azaldu ditugu, oro har, edonoiz eta edonon onar daitezkeen iritziak. Orain, berriz, euskal gizartearen egungo errealitate jakinari buruz egingo dugu gogoeta.

Lehenik eta behin, garrantzitsua iruditzen zaigu euskal gizartearen izaera elebiduna islatzen duen herriari buruzko ikuspegia aurkeztea, eta elebitasun horren erakusgarri nabarmenenetako bat literatura-sorkuntza dela azpimarratzea. Hizkuntzen arteko harremanei buruzko auzia gizarteari eta herritarrei dagokie. Baina irtenbidea ez da modu arbitrarioan edo laborategi batean bilatu behar; haatik, herritarren eta gizartearen egitura horrekin elkarlanean aritzearen poderioz aurkituko dugu konponbidea. Izan ere, egitura horrek geografia, hizkuntza, kultura eta ideologia pluralak dituen herri bat erakusten digu.

Hizkuntzak ez dira monolitikoak eta, zorionez, hiztunak ere ez. Ideologiaren eta estetikaren ikuspuntutik plurala den euskal literaturaren errealitateak argi erakusten du hori.

Hizkuntzak tresna baliagarriak dira, baina, xede bakarra legitimazio politikoa denean, hizkuntzaren auziarekin egiten den erabilerak, eta areago, gehiegizko erabilerak, jaurtitzeko arma bilaka dezake hizkuntza.

Alde horretatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu politika kultural integratzaileak sustatzea, idazten duen hizkuntza edozein dela ere, gizarteak euskal idazleari buruz duen iritzia bateratu izan dadin, eta irudi bateratu hori sustatzeko eta jarduera literarioa garatzeko hizkuntza bat edo bestea erabiltzen duten idazleen arteko komunikazioa bultzatzearen.

Bestalde, idazlearentzat tradizio literarioak duen garrantzia gogoraraztea komeni zaigu orain. Literatura-hizkuntza erabat loratzen da gunee berriak zabaltzen dituenean, bai eta berea ez den inguru batean gunee horiei bihotza irekitzen dienean, bizia eta esanahia hartzen baititu eta durundia egiten baitu. Horrela, hizkuntzek proposamenak egin eta jasotzen dituzte eta beren etorkizuna zabaltzen dute. Idazketaren originaltasuna sortzen da besteek lehenago egindakoari buruz hausnarketa egiten denean, hots, besteek idatzitakoan oinarrituz idazten denean.

Literatura-lanek balio estetikoak dute Edgar Allan Poe-k esan bezala zirrara 'berria' eragiten dutenean, era batean edo bestean, tradizioari uztartuta agertzen direnean eta hura aberastu, zalantzan jarri eta gainditzen dutenean. Alabaina, idazleentzat tradizioa ez da beren hizkuntzara mugatzen, literatura osora heltzea baitu jomuga. Itzulpena, hain zuzen, hizkuntzen eta horien tradizio espezifikoaren arteko zubi pribilegiatua da. Hortaz, gure hizkuntzakoak ez diren lanak itzultzearen alde egiten dugunean, hizkuntza horren tradizioa eta sorkuntza sustatzen ditugu. Harremanek, idazlearen lanaz gain, haren egintza ere aberasten dute. Harreman horiek bilatzeak eta bultzatzeak elkar ezagutzen eta literatura-ekintza hedatzen laguntzen dute.

Aitzinean aipatutako guztiak garrantzia berezia hartzen du euskararen garapenaz eta normalizazioaz ari garenean. Atzerriko lanak itzultzeak, hain justu, irakurleei literatura-eskaintza geroz eta oparoagoa eskuratzeko aukera emateaz gain, idazleei berei ere literatura-eredu berriak proposatzen dizkie beren hizkuntzan islatzeko. María Zambranoren iritziz, "Kultura batek duen indarra erakusten du bere esparruan izenik gabeko izaki anonimoek beren baitan esfortzurik gabe molde bat dutenean, eta ez molde hori izakien jabe egiten denean".

Literatura-harremana eta -trukea eskasak zirenean, hizkuntza bat isolatua, tradizio sendoetatik at, gera zitekeen, batez ere, hizkuntza nagusien ingurutik kanpo bazegoen. Gaur egun, ordea, beste tradizioetara azkar eta erraz hel daitezke idazleak, are gehiago, beren neurriko tradizioa ere molda dezakete.

Bestalde, ez dugu ahantzi behar idazle izateak ez duela esan nahi idaztetik bizi denik. Aitzitik, lanbide horri eskainitako arduraren eta ordainsariaren artean ez da inongo logika orekatuik, bidezko elkarrekikotasunik, izaten gehienetan. Sorkuntza literarioa sustatzera zuzendutako politika kulturalak ez luke egoera hori ahaztu behar. Aintzat hartu beharko luke, ordea, lanbide horrek eta bere emaitzek gizartearen kohesioari eta izen onari mesede handia egiten dietela.

Bada hizkuntza baten eragin soziala erabiltzen eta haren ahalmen kritikoa oztopatzen saiatzen denik ere, eta era askotako jarrera eta iritziak dituzte gainera. Hizkuntza batek sortzen dituen molde artistikoak bazterrean uzteko joera izaten du botereak, bere ideia politikoeekin bat ez datozenean edo horien kontrakoa esaten dutenean; eta babesteko joera, aldiz, bere printzipioak eta balioak legitimo bilakatzen dituzenean.

Aurreko iritzi horiek guztiek gure proposamena bi ildo nagusitan banatzera bultzatzen gaituzte: hizkuntza-arloari buruzko kohesio sozialari dagokio bata; euskal literaturaren hedatzean eta sorkuntzan modu zehatzagoan eragiten duten alderdiei buruzkoa bestea.

## **1. KOHESIOA**

Euskal Herrian, egun, askotariko proposamen eta zerbitzu kulturez gozatzeko aukera oparoa dago, bai eta jarduera kultural horren eskaera eta eskaintzaren arteko elkarrekikotasun aktiboa ere. Bestalde, aipatu behar da egile ugari ditugula, gure mugek barnean eta horietatik kanpo, begirunea piztu duten eta ospea duten lanen sortzaile. Horrek guztiak esan nahi du kulturaren ikuspuntutik gizarte bizia eta emankorra dela gurea. Gainera, bizitasun eta emankortasun hori maiz garatzen da administrazioak esku hartu ala ez, edo administrazioetik kanpo.

Hala ere, gure jarduera kulturalak tirabirak eta desadostasunak sortzen ditu zenbaitetan. Horiek ez dira jarduera literarioaren bide zentzuzkoaren eta desiragarriaren ondorioz agertzen, baizik eta hizkuntzen artean dagoen tirabiraren erruz. Hori dela eta, uste dugu ezinbestekoa dela idazle euskaldunen kohesioa sustatuko duen herriaren ideia integratzaile bat aurkeztea. Horretarako, ekimen eta parte-hartze kultural hauek proposatzen ditugu:

- Bi printzipio hauek sustatzea: bata, elebitasuna bizikidetasuna etengabe garatzea dela; eta, bestea, hizkuntzak komunikatzeko tresnak direla, batik bat.
- Era berean, beste ideia hau ere bultzatzea: bi hizkuntzetatik edozein erabiliz idazten duena dela euskal idazlea. Bi errealitate sortzaile horiek elkar ezagutzeko eta zeharkako egiteko mekanismoak indartu behar dira itzulpenerako eta trukerako programa espezifikoaren bidez.
- Bi hizkuntzen hedatze-eremuek gune komunak sortzen dituzte (Euskal Autonomia Erkidegoan euskara eta gaztelania ofizialak dira), baita gune bereziak ere. Hori dela eta, komeni da hedatze-politikak filosofia komun baten inguruan egituratzea. Ondoren, filosofia horretatik abiatuz, hizkuntza bakoitzaren errealitate sozialari erantzun dion berariazko politikak ezarriko lirateke.
- Bi hizkuntzetako produkzioen artean komunikatzeko loturak babestea; aterik gabeko, hots, elkarren arteko inongo harremanik gabeko, konpartimentuak sortzea eragozteko.
- Komunikabideek hizkuntza bietako errealitate literarioaren berri ematea sustatzea. Betiere ikuspegi integratzaile horren arabera eta administrazioak gai horretan parte hartzeko dituen mugen barnean.
- Hezkuntza-sisteman kulturen arteko bizikidetasun-programak ezartzea – kultura ez baita helduen ondarea soilik—. Eta esparru horretatik bertatik tolerantzian eta errespetuan oinarritutako ohitura kulturalak sustatzea.
- Laguntzen, beken eta sarien arloan politika kultural integratzaileak, bateratzaileak indartzea.

## **2. SORKUNTZA**

Bigarren atalari hasiera emateko, aurrekoaren azken gaiari heldu nahi diogu. Gure aburuz, ezinbestekoa da "sorkuntzarako laguntza" zein egoeratan dagoen argi azaltzea. Horregatik proposatzen dugu egun Euskadin ematen diren laguntzen, sarien eta beken inbentarioa egitea, ahaleginak batu, bikoizketak saihestu, eta literatura-sorkuntzarako laguntza materiala modu eraginkorragoan bideratze aldera.

Era berean, premiazkoa iruditzen zaigu oinarritzko irizpide batzuk prestatzeko lan egitea. Irizpide horiek, hain zuzen, epaimahaikideak, bekak ebaluatzeko batzordeak, eta, oro har, diru-laguntza horiek emateko arduraren dutenak orientatzeko balio dezakete. Azpimarratu nahi dugu proposamen horrek kaltegarri deritzogun gabezia bati erantzunio liokeela, egun sorkuntzarako laguntzak sakabanatuta eta zatituta baitaude. Gure ustez, bestalde, irizpide horien helburua orientatzea da, eta etengabe egokitu eta berrikusi daitezkeen baldintzak izan beharko lukete.

Halaber, uste dugu erakundearen fondoen zerbitzu zentralizatu bat falta dela administrazioak lagundu dituen argitalpenen erabilera kontrolatzeko. Egia esan, argitalpen gehienak, oraindik, ez dira egoki banatzen. Nahiz eta lan oso interesgarriak izan, *de facto* baztertu egiten dira eta zokoan uzten dira. Egoera hori gaitzesgarria eta zentzugabea da ikuspuntu askotatik begiratuta, eta, gainera, politika kulturalari aipua kentzen dio, axolagabekeriarekin, hutsaltasunarekin eta xahubidearekin lotzen baita.

Aipatu diren arrazoiak direla medio, ekimen hauek proposatzen ditugu:

- Liburuaren organo aholku-emaile bat sortzea, dela ekimenak aztertzeko, dela proposamenak egiteko, bai administrazioari zuzenean, eta bai literatura-sorkuntzan eta -banaketan esku hartzen duten sektoreei (gremioak, profesionalen elkarteak eta abar).
- Ekimenak kontzentratzea sustatzea. Batetik, irizpideak bateratzeko, eta, bestetik, ikuspegi kontzeptualetik nahiz praktikotik, laguntza publikoak indartzeko. Gainera, laguntza horien diru-kopurua eta diruz lagundu eta saritu diren lanen hedatzea arrazionalizatu behar dira.

Administrazio-erakundearen artean (Eusko Jurlaritzan, diputazioak, udalak) gai honen inguruan lehian ibiltzea kaltegarria dela aditzera eman behar du Administrazioak. Izan ere, norgehiagoka hori literatura-sorkuntzaren kalterako da, laguntza sakabanatu egiten baitu eta, ondorioz, babesaren murriztu eta behar baino gutxiago erabiltzea egin.

- Laguntzak emateko politika publikoak sustatzea (sariak, bekak, diru-laguntzak), eta horiek sektore pribatutik argi eta garbi bereiztea, 'filosofia'ren aldetik ez ezik, baita garrantzi praktikoaren aldetik ere.



Horregatik, uste dugu Administrazioak, laguntzak bigarren aldiz eman ordez, merkatu kulturalaren aurrekontuak eta eskakizunak orekatu eta berdindu behar dituela.

- Ildo berari jarraituz, merkatutik desagertu diren edo eskuratzen zailak diren eta benetako interes kulturala duten idazlanak (berriz) argitaratzea, horiek saltzeko aukerari baino gehiago idazlanen garrantzi kulturalari erreparatuz.

- Gure hizkuntzetako literaturak garatzeko bi beka-mota bereiztea eta ezartzea, biak ere garrantzi berekoak gure iduriz eta lehenago azaldu diren arrazoiengatik.

Batetik, trebakuntza-bekak sortzea, bai. atzerrian literatura-ikastaroak egiten laguntzeko, bai eta atzerriko hizkuntzetan trebetasuna lortu eta kalitatezko truke eta itzulpenak egitea lortzeko ere.

Bestetik, literatura-sorkuntzaren behar zehatzei erantzuna emango dieten bekak, eta, oro har, mekanismo estrukturalak, ekonomikoak eta fiskalak diseinatu behar dira.

Ezinbestekoa deritzogu gurearen antzeko egitura eta programak dituzten herrialdeekin harremanak ezartzea, gure sortzaileek eta itzultzaileek, kondizio egonkorretan eta elkarrekikotasun-egoeran, beka horiek errazago lor ditzaten.

- Liburuaren aldeko politika eta egilearen aldeko politika argi eta garbi bereiztea. Argitaletxeentzako laguntzak, besterik gabe, ez du literatura-sorkuntza bultzatzen; aitzitik, egileen kalterako izaten dira maiz.

- "Literatura-sorkuntzaren euskal zentroa" bideragarria izango litzatekeen aztertzea, Europako beste herrialdeetako "Idazlearen etxea" edo "Literaturaren etxea" eta horien gisako zenbait ereduri jarraituz. Jakintza-alor eta balio anitzeko zentroa izango litzateke.

- Euskal Autonomia Erkidegoko mugak gainditu eta Euskal Herriko hiru hizkuntzetako batean idazten duten euskal idazleen eta idazle-elkarteen arteko harremanak sustatzea.

### 3. HEDATZEA

- Sortzaile berrientzako laguntza-politikak sustatzea, egileei eta argitaletxeei diru-laguntzak emanez. Hala ere, horrek ez dio kalterik egin behar ibilbide luzeagoa eta frogatua duten idazleei.

- Administrazioak diruz lagundutako argitalpenak banatzeko eta komertzializatzeko politika eraginkor eta koherenteak ezartzea.

- Irrati eta telebista publikoetan liburua indartzeko politika bultzatzea. Hitzari prestigioa ematea elkarrizketan eta bizikidetasunean inbertitzea da, sarreran esan dugun lez.

Liburuaren aldeko politika hori informazioa emanez, literaturaren inguruko eztabaidak antolatuz eta publizitatea eginez gauzatuko da.

- Administrazioak euskal idazleen eta nazioarteko idazle-erakundeen arteko harremanak erraztea eta babestea.

- Euskal Herritik kanpo korrespontsalia-sarea (zentroak, agentzia burujabeak nahiz adostuak) abian jartzeko diseinua egitea. Sare hori Europako beste ereduaren arabera (Goethe Institut, Institut Français edo British Council) eratuko da, eta euskal kulturak eta literaturak mundu osoan presentzia handiagoa izatea du helburu.

- Euskal literatura-proposamenak ezagutzera emateko Internetek ematen dituen aukerak aztertzea eta modu eraginkorrean erabiltzea. Horretarako, euskal idazleei buruzko web orriak egingo dira euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.

- Euskal literatura-lan esanguratsuenak hautatzea eta erostea, mundu osoko liburutegietan eta zentro espezializatuetan (Cervantes Institutuak, unibertsitateak, arte-zentroak) egongo direla ziurtatzeko.

- Zentro horietan Euskal Literaturak berriazko apala izan dezan bultzada ematea, eta euskal idazleei eta lanei buruzko ikerketa akademikoak garatzen laguntzea.
- Euskal idazleak eta argitaratzaileak biltzarretan, hitzaldietan eta liburuen azoketan parte hartzea bultzatzea.
- Euskal gizartearentzako eduki interesgarria duten lanen itzulpen-eskubideak erosteko atal ekonomiko berezi bat ezartzea.
- Euskal idazlanak erdaretara itzultzearen alde egitea.

#### **4. IRAKURKETA**

Ezin da ukatu irakurketa dela literatura-hedatzearen errealitatearen eta etorkizunaren oinarria. Bestalde, bistakoa da literatura-katearen pieza hori ahula dela. Hainbat inkestek eta azterketek erakutsi dute irakurketa-indizeak ez direla hazten ari, eta, oraindik okerrago, atzera egiten ari direla. Halaber, hori baino kezka handiagoa den beste zerbait ere azaltzen dute: haur gehienek irakurtzen dutela eta nerabe gehienek, berriz, bigarren hezkuntza bukatzerako irakurtzeari uzten diotela.

Ondorioz, irakurleak –gaztetxoak eta ez hain gazteak– galtzeko joera horri buelta ematea ezinbesteko baldintza da literatura indartzeko politika batean, eta ez haren osagaia. Hori dela eta, irakurketari bere atala eskaini nahi izan diogu.

Irakurtzeko ohitura pizteko, idazleek zuzenean esku hartzea proposatzen dugu, batez ere, hezkuntza-sistemaren bidez. Horregatik behar-beharrezkoa iruditzen zaigu honako hau:

- Idazketa hezkuntza-sisteman sartzea, era aktiboan eta etenik gabe. Horretarako, hobe da irakaskuntza-programan literatura-lanari buruzko gaia sartzea, hitzaldi edo topaketa batean idazle bat gelan hizketan aritzea baino.

. Hezkuntza-programak sormenezko idazketa-ikastaroen eta -tailerren bidez osatzea. Idazleek trebatuko dituzte horretan gazteak ikasturte osoan zehar (edo dagokion aldi akademikoan), eta helburu hauek izango dituzte: ikasleak sormen-prozesuan murgiltzea eta literatura-lanak hartzeko eta kritikatzeko tresnak izatea, parte-hartzea sustatu eta lan horiekin harreman zuzena izan dezaten.

. Hezkuntzaren maila guztietan, lehen hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino, horren gisako esku hartzeko eskemak ezartzea.

Gainera, paradoxa bada ere, atzerriko unibertsitateek gure idazleak irakasle moduan gonbidatzen dituzte, eta hemengoek, aldiz, horrelako aukerarik ez diete ematen ez idazleei ez eta ikasleei ere.

. Bukatzeko, idazleen eta liburutegien arteko harremana sendotzea, idazleen eta irakurleen arteko harreman zuzena liburutegien jarduera nagusi bihurtzea. Pertsonak apalak ordezkatzeko... parte hartzeko estrategia zentzuzkoa eta erakargarria dirudi. Alegia, komunikatzeko bide arras erakargarria.